

LANERAKO FITXA: SUPER PEPO ETA MIKA



Jarduera honekin, zera landuko dugu

Pertsona askok elikaduraren eta osasunaren aldetik gabezia handiak daukatela.

Desberdinkeriak injustizia eragiten duela.

Erantzukizuna eta ahalegina oso garrantzitsuak direla.

GJH: **1.a**, Mikaren eta bere familiaren pobrezia-gatik; **3.a** amen osasunaren gai garrantzitsu-gatik; **4.a**, hezkuntzaren garrantziarekin lotutako guzti-gatik; **5.a**, premia-egoera askotan neskek hartzen dituztelako beren gain etxeko lanak, askotan beren ikasketak albo batera utzita, eta **10.a**, desberdinkeria ekonomiko-gatik.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\).](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Super Pepo eta Mika ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiazko oharrak

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Arduratsua izatearen garrantziaz jabetuko dira; hau da, eginbeharrak daukatela onartzen ikasiko dute, eta eginbehar horiek ahalegin handia eskatzen dutela batzuetan.
- Besteek egindako lana eta ahalegina baloratzen ikasiko dute.

Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri ondoren, galdera batzuk egingo dizkiegu ikasleei, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Super Pepo hegazkinez joan zen Mikaren herrialdera.
- Mikaren ametsa Udaberriko Festan eskolako banderarekin desfilatzea zen.
- Notarik onenak ateratzen dituenak desfilatzen du banderarekin, nahiz eta ikaskide txarra izan.
- Mikaren familia oso aberatsa zen eta janariz beteta zeukaten hozkailua.



- Mika basoan egurra biltzen hasi zen, bere familiari laguntzeko.
- Mika benetako superheroi bat da, bere familiari lagundu ziolako eta, gainera, eskolako lanak egiteari utzi ez ziolako.

Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Zenbait pertsonaia agertzen dira ipuinean? Gogorutzen al dituzue haien izenak?
- Mikari dagokionez, zer gustatu zaizue gehien?
- Zergatik gaixotu da bere ama? Gure inguruan gertatzen al da horrelakorik?
- Zer egitea erabaki zuen Mikak, bere familiari laguntzeko?
- Zuek egin behar izan al duzue inoiz horrelakorik?
- Mikak merezi al zuen bandera eramatea? Zergatik?
- Zer ikasi duzue Mikarengandik?
- Bere izenik aipatzen ez bada ere, ipuin honetan zein supermaltzur dago zuen ustez? Zergatik?

Ipuin honek irakaspen garrantzitsu batzuk jasotzen ditu. Aipatu zuen arreta piztu duten batzuk.

SUPER PEPO ETA MIKA

Superheroien Akademian, praktikak egiten hasi gara. Orain arte ikasitako guztia erakusteko ordua iritsi zaigu. Adi-adi egoten ez bagara, kendu egingo dizkigute lortu ditugun kapak, eta, kapak berreskuratzeko, dena ikasten hasi beharko dugu berriro.

Irakasleak agindu zigun lehen lana harrigarria iruditu zitzaidan.

—Dakizuen bezala —esan zigun andereñoak—, superheroiek besteei laguntzen jakin behar dute, baina besteengandik ikasi ere egiten dute. Horregatik, zuen aurreneko lanaren izenburua hauxe izango da: «Munduko beste herrialdeetako superheroiak».

—Ze ondo! —pentsatu nuen nik—. Urruti bizi diren beste neska-mutil batzuen historia ezagutuko dugu! Oso desberdinak ote gara? Nolakoak ote dira haien ikastetxeak? Haien kapa gurearen kolore berekoa ote da?

—Aupa! —esan zuen Iñakik—. Eta noiz joango gara? Nire lehengusina, behin batean, oso urruti dagoen herrialde batera joan zen, eta hamabi orduko bidaia egin behar izan zuen hegazkinez!

—Bidaiatu beharko duzue, bai —esan zigun irakasleak—, baina «Irudimenaren indarra» ikasgaien ikasi zenutena praktikan jarritz.

—Arrazoi duzu, andereño —esan zuen Iñakik—. Ahaztu egin zait irudimenaren bidez nahi dugun lekura joan gaitzkeela eta oso abentura ederrak bizi ditzakegula.

Gau hartan, oheratu nintzenean, begiak itxi, eta, konturatu nintzenerako, hegan nenbilen, ziztu bizian, nire irudimenari esker. Herritxo batera iritsi nintzen. Kaleetan, neska-mutil ugari zebiltzan alde batetik bestera korrika. Halako batean, bizkarrean egur pila bat hartuta zihoan neskatxa beltzaran bat ikusi nuen. Argal-argala zen, eta oso begi handiak zituen. Mika zuen izena. Hona hemen bere historia:

«Mikak zortzi urte ditu eta bi anai-arreba ditu: Fabián, sei urtekoa, eta Sara, jaioberria.

Bere familiak ez du diru asko. Bere aita nekazaria da, baina denboraldi labur batzuetan bakarrik aritzen da soroan lanean. Mikak, ikasturtearen hasieran, bere ametsetako bat betetzen ahalegintzea erabaki zuen: Udaberriko Festan eskolako banderarekin desfilatzea. Notarik onenak ateratzen dituzten ikasleen artean, ikaskiderik onena izendaturikoak lortzen du hori. Mika gogotik saiatzen ari zen amets hori betetzen, eta irrikaz zegoen bandera eramateko.

Baina Sara jaio zenean, bere ama gaixotu egin zen. Izan ere, amatxo guztiek, haurdun daudenean, ondo elikatu behar dute, eta, ondo jaten ez badute, haurra jaiotzean indarrik gabe geratzen dira, Mikaren ama bezala.

Mikaren amak, sendatzeko, atsedean hartu eta ondo elikatu behar zuen. Baina hori, haientzat, oso zaila zen. Haien etxean ez zegoen janariz betetako hozkailurik, gure etxeetan bezala, eta zeukaten janari apurra denen artean banatu behar zuten.

Mikak, ikastetxetik itzultzean, etxeko lan guztiak egiten zituen, eta bere ama eta anai-arrebak zaintzen zituen. Aitak oso diru gutxi irabazten zuela ikusi zuenean, Mikak arratsaldero basora egur bila joatea erabaki zuen, gero herrian etxez etxe saldu eta diru pixka bat lortu ahal izateko. Horrela, bere amarentzat janari pixka bat erosi ahal izango zuen, lehenbailehen sendatzeko.



Baina Mikak ez zeukan eskolako lanak egiteko denborarik, eta nota txarrak ateratzen hasi zen. Beste ikasle batzuk bera baino nota hobeak ateratzen ari ziren. Udaberriko Festa hurbiltzen ari zen, eta andereñoak hauxe esan zien ikasleei:

—Beharrezkoa da liburuetan datorrena ikastea, baina hori baino askoz garrantzitsuagoa da inguruan ditugunei laguntzea. Mikak lan handia egin du eskolan, baina, horrez gain, lagundu egin dio familiari. Oso neska langilea izan da. Nire ustez, aurten Mikak eraman behar luke bandera Udaberriko Festan. Zer iruditzen zaizue?

Neska-mutil guztiei oso ondo iruditu zitzairen andereñoaren proposamena: Mikak bandera eramatea merezi zuen, lan handia egin zuelako eskolan eta, batez ere, eskolatik kanpo, familiari laguntzen.

Eta, azkenean, iritsi zen Udaberriko Festaren eguna. Mikak poz-pez eraman zuen bandera, eta inoiz baino alaiago jarri zen herriko plazan sartu eta bere gurasoak eta anai-arrebak berari txaloka ikusi zituenean.»

Nire gelako neska-mutilei asko gustatu zitzairen Mikaren historia. Irakasleak zoriondu egin ninduen, eta zera esan zigun:

—Oso garrantzitsua da beste superheroiek zer egiten duten jakitea eta haiengandik ikastea.

—Gainera —esan nuen nik—, berari gertatutakoak daukaguna baloratzen erakusten digu: hemen ondo elika gaitzke, gure amak osasuntsu daude eta zaindu egin gaitzakete, gaixotasunen bat izanez gero sendagilearengana joan gaitzke, eta eskolara, ikastera eta jolastera ere joan gaitzke. Nik ez dakit nola duen izena Mikaren Superheroien Akademiak, baina munduko onenetakoa izango da, zeren guk zahartu arte aritu beharko genuen berak dakien guztia ikasten.